


Bunkerrak ia edozertarako



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Berlin, 1942ko martxoaren 23a. Adolf Hitlerrek Atlantoko horma (alemanez, *Atlantikwall*) eraikitze-ko agindua eman zuen. Defentsa lerroa indartzeaz Todt Erakundea arduratu zen; Fritz Todt (1891-1942) ingeniariak sortu zuen erakundea, baina urte hartan bertan hil zenean, Albert Speer Führer-aren arkitekto kuttunak hartu zuen kargua. Atlantikoko hormak ia 5.000 kilometro hartuko zituen, Bidasoatik hasi eta Norvegia iparralderaino.

Hasieran Europa mendebaldeko kostaldeko portu nagusiak gotortu zituzten, eta 1943an hasi ziren tarteak bunkerrez eta kasamataz betetzen. Berez, alemaniarren jatorrizko asmoa lerroa Bilboko portutik hastea zen. Hendaiakoa ez zen itsas base garrantzitsua, baina azkenean hortxe hasi zen defentsa lerroa. Hendaiaren 150 bunker inguru eraiki zituzten, 200 bat Lapurdiko kostaldean. Eta Atlantikoko horma osoan 600 motatako ia 12.000 eraikin militar egin zituzten, defentsa beharrei eta orografiari egokituak.

Harresiaren zeregin nagusia militarra zen, jakina, eta hor porrot egin zuten bunkerrek, Normandiako lehorretratzeak agerian utziko zuenez. Baina beste funtzio asko ederki bete zituzten eta betetzen dituzte gaur egun.

D eguna baino lehen, propagandarako tresna eraginkorra izan ziren horma osatzeko lanak. Ingeniaritza obra faroniko hark Alemaniaren indarra erakusten



BIDARTEKO HONDARTZAKO BUNKER HAU EGOKITU ETA ETXEBIZITZA MODUAN ERABILGARRI JARRI DUTE.

zuen, eta Reicharen mugak gaindiezinak zirela sinestarazten zieten animo beharrean zeuden alemaniarrei.

Frantzian 600.000 langile ingururi eman zien lana proiektuak. Soilik Cheourgen 34 enpresa, 79 azpikontrata eta 15.000 langile aritu ziren, Vichyko gobernuaren onspenaz; gerra amaituta, enpresa horiek ez zituzten zigortuko.

Ingeniaritzari ekarpen handiak egin zizkion Atlantikoko hormak: aurrez erabili gabeko materialak, teknikak eta logistika garatu zituzten horretarako. Eta horregatik, gaur egun sendo eusten dioten egitura asko berrerabiltzeko moduan daude.

Bunkerrak arte euskarriak dira kanpotik nahiz barrutik. Lapurdiko eta

Landetako hondartzetako porlanezko arrastoak graffitiz beteta egoteak agerian uzten dute hori. Eta Christian Boros eta Karen Lohmann bildumagile alemaniarrek Berlingo bunker zahar bat egokitu zuten beren bilduma erakusteko. Frankfurtoko musika institutu batek ere bunker bat du egoitza. Herbehereetan kafe eta te etxe ekologiko bat egin dute bunker batean. Eta badira bunkerrak etxebizitza moduan erabiltzeko egokitu dituztenak ere; adibidez, Bidarteko hondartzakoa.

Eta denek, egitura eraberritu sofistikatuenetik hasi eta hondartutako zementu zati higituetaraino, beste funtzio bat betetzen dute: memoria ez galtzea. ●



“Brontze Aroko New York”

Itai Elad, Yitzhak Paz eta Dina Shalem ikerlariak halaxe definitu dute En Esur aztarnategia (egungo Israel). Duela 5.000 urteko hiriaren arrastoak dira eta 6.000 biztanle inguru zituela uste dute, hortaz, zonalde hartako garaiko hiririk garrantzitsuenetzat dute. Aztarnategia 1950eko hamarkadan aurkitu zuten Is-

rael iparraldeko kostaldeko errepidea eraikitze lanetan ari zirela. Baina arkeologoak 2017an hasi ziren En Esurretik ahal zuten guztia ateratzen eta aztertzen, aurkikuntzaren garrantziak ez baititu eremu horretako azpiegitura lanak eten. Eta, azkenean, Brontze Aroko New York asfaltoak jango du. ●